



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2021

Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556

✉ kluster@soziolingvistika.eus

📍 www.soziolingvistika.eus

📘 sklusterra

🐦 @sklusterra



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak eginez eta bertako zein nazioarteko soziolingvistika ezagutza kudeatuz egiten dio ekarpena euskararen gizarte garapenari.

Ezagutza zorrotza eta fidagarria eskuratzeko, metodo zientifikoa baliatuz jarduten du unibertsitate esparruko ikerlariekin, administrazio publikoarekin, enpresa pribatuekin eta euskararen aldeko gizarte mugimenduekin elkarlanean. Soziolingvistika Klusterrak euskararen hitzun komunitateari ekarpena egiteko xedez, sortutako ezagutza soziolingvistikoa gizartean ahal bezainbeste hedatzeko bokazioa du.



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons
Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa
(CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da.
Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu
<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA URTEKO TXOSTENA 2021

BAZKIDEAK

OHOREZKO BAZKIDEA:



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

- Artez Euskara Zerbitzua
- Bermeoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Ebete elkarte
- Elhuyar Aholkularitza
- Emun Kooperatiba Elkarte
- Erandioko Udala
- Errenteriako Udala
- Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarte
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskaltzaleen Topagunea
- Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK)
- Eusko Ikaskuntza
- Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
- Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Hernaniko Udala
- HUHEZI Koop. E. Mondragon Unibertsitatea (MU)
- Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte (NETLE)
- Sakanako Mankomunitatea
- Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)
- Zumaiako Udala



Errenteriako Udala



ikastolenelkarte



euskaltzaleen topagunea



Urtxintxa
KALITATEZKO HERRITARRAK



LABORAL
kutxa



Zumaiako Udala

NORBANAKO BAZKIDEAK:
69 pertsona

URTEKO TXOSTENA 2021

AURKIBIDEA

1	2021ari buruz	4 or.
2	Nortasuna eta egitura	6 or.
	2.1 Erabaki-guneak	6 or.
	2.2 Barne-proiektuak	7 or.
3	PROIEKTUAK	8 or.
	3.1 Aldahitz Ikerketa	9 or.
	3.2 Hizkuntza-ohituren aldaketak Osakidetzan	10 or.
	3.3 Hizkuntza ohituren aldaketa eremu afektiboan. Proba pilotuak Arabako Lautadan	11 or.
	3.4 Arrue Proiektua	11 or.
	3.5 Enpresaren Erantzukizun Linguistikoa (EEL) kudeatzeko gida. Eralan5	12 or.
	3.6 Jendaurrean Erabili	13 or.
	3.7 Gipuzkoa Berdinago	14 or.
	3.8 Euskara Kirokide	15 or.
	3.9 Euskarabenturako Ikerketa	16 or.
	3.10 Erandioko haur eta gazteen kontsumo- eta hizkuntza-ohiturak	16 or.
	3.11 UEH ikerketa: Udalerrri Euskaldunetako Haurrak eta Euskara	17 or.
	3.12 Euskara Legutioko Moldera: hiztunak saretzen eta aktibatzen	18 or.
	3.13 Hizkuntza Aniztasunaren Mapak	19 or.
	3.14 Hizkuntza-Aktibazioa eta Gazteak Goerrin	20 or.
	3.15 Getxoko egoeraren azterketa soziolinguistikoa	21 or.
	3.16 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa. Euskal Herria 2021	22 or.
	3.17 Hizkuntzen Erabileraren Neurketak UEMako Udalerrietan eta Tolosaldeko Udalerrietan	24 or.
	3.18 Hizkuntzen Erabileraren Neurketak Euskal Herriko Unibertsitatean	25 or.
	3.19 Hizkuntzen Erabileraren Neurketak Gipuzkoako Kirol Jardueratan	26 or.
	3.20 Hizkuntzen Erabileraren Neurketak UEMako Udalerrietako Ikastetxeetan	26 or.
	3.21 Euskararen Adierazle Sistema	27 or.
	3.22 Berba-Lapiko	28 or.
	3.23 Berbekin	29 or.
	3.24 Ahozotasuna Lantzeko Prestakuntza	29 or.
	3.25 Badalab	30 or.
	3.26 Txillardegi-Hausnartu-Euskal Soziolinguistika Sariak	31 or.
	3.27 Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2021. Migrazioak eta Harrera Linguistikoa	32 or.
	3.28 BAT Soziolinguistika Aldizkaria	33 or.
	3.29 Soziolinguistika Albistaria	34 or.
	3.30 Soziolinguistika.eus Webgunea	35 or.
4	Lankidetzak, harremanak eta bestelakoak	36 or.
	4.1 Aurkezpenak eta formakuntza	36 or.
	4.2 Kongresuak, jardunaldiak eta mintegiak	36 or.
	4.3 Egitasmo berezietan parte hartzea	38 or.
	4.4 Harremanak	38 or.
5	Balantze ekonomikoaren laburpena	40 or.

1

2021ari buruz



2004an sortu zenetik etengabeko berrikuntzan eta eraldaketan dagoen erakunde da Soziolinguistika Klusterra. Euskararen biziberritzearen beharrei erantzuteko etengabe bere burua asmatu eta berrasmatzen du ikerguneak. 2021a ere asmo berrituz eta dinamika berrietatik ateratako ikasketez betea izan da. Tartean, niri egokitu zait AEKren izenean erakundearen lehendakaritza hartzea, Eusko Ikaskuntzako Mikel Irizarren eskutik. Ilusioz eta gogoz heldu diogu aro honi, jakinda euskal soziolinguistikaren eremuan dihardugun erakunde, ikerlari, teknikari eta herritarrena dela Klusterra. Horien guztien borondateari eta beharrei erantzutea dagokigu eta horretan saiatuko gara Bulego Teknikoaren eta bazkideen ezinbesteko ekarpenaz.


2020an onartutako egitasmo estrategikoan marraztutako bidetik jardun dugu 2021ean ere. Erakundearen *komunikazio plana* berritu da, batetik. *Bazkideetza plana* egiteko prozesua abiatu da, bestetik. Gainera, Soziolinguistika Klusterrak euskal gizartean duen *funtzioaren gaineko hausnarketarako* tartea ere hartu dugu. Azken urteetan beste hainbat erakunderekin lantzen jardun dugu *Badalab* berrikuntza laborategiak argia ikusi du 2021ean, etorkizuneko erronkei gauzak desberdin eginez erantzuteko xedearekin.

Eta horrez guztiaz gain, 30 proiektu baino gehiago landu ditu Klusterrak 2021ean. Ereku akademikoko ikerlariak, administrazioak eta eremu pribatuak profesionalak, gizarte erakundeetako

aktibistak eta beste hainbat pertsona lankidetzan aritu dira horietan guztietan. Euskararen soziolinguistika ezagutzaz sortzeko eta ezagutza hori zabaltzeko egitasmo hauek euskararen lurralde osoan gauzatu dira. Horretarako lagungarri gertatu da lehen aldiz Nafarroako Gobernuak Euskarabidearekin sinatu dugun hitzarmena.

Izan ere, ez dira nolana hikoak aurrean ditugun erronkak. Aldaketak eta ziurgabetasunak ageriko egin zaizkigu azken aldian. 2020tik hona, COVID19aren pandemiak eguneroko bizimodua eta lana baldintzatu du; eta pandemiaren eragin soziolinguistikoa ere arretaz aztertu beharrekoak dira. *Jendaurrean Erabili* proiektuan, adibidez, erakundeen komunikazio publikoan eragin duen astindua espreski ikertu da.

Edonola ere, badira lehenagotik martxan zeuden fenomeno sozialak, azken urteetan areagotu direnak, eta euskararen etorkizuneari berebiziko zeresana izango dutenak. Gure ingurune soziolinguistikoan euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren hizkuntzek duten tokia aipa genezake, adibidez. Migrazio mugimenduei lotuta, Euskal Herrian 120 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla identifikatu da lurralde ezberdinetan egin izan diren *Hizkuntza Aniztasunaren Mapen* bidez. Etorri berrien harrera linguistikoa eta hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa egokiari buruzko ikerketa proiektuak eta hausnarketak ezagutu genituen azaroan Iruñean egindako *Euskal Soziolinguistika Jardunaldian*.



Euskararentzat erronkak dakartzan beste joera edo fenomeno global orokor bat digitalizazioarena litzateke. Eremu digitalak herritarron bizimoduan hartu duen tokiari lotuta, hizkuntzen etorkizuna bertan ere jokutzen da. Euskaldunak eremu digitalean ere euskaraz bizi ahal izateko egitasmo ugari daude martxan, eta beharrezkoa da indar-guneei eta ahul-guneei begiratzea hauek norabidetzeko. *Euskararen Adierazle Sistemak* alor horretako datuak inplementatu ditu azken urtean eta gaia jorratu du ekimen komunikatibo batzuekin.

Norbanakoen arteko harremanak dira hizkuntza-erabilerarako funtsezko eremuetako bat. Hemen ere aldaketa esanguratsuak bizi ditugula esan genezake, besteak beste indibidualizazioz eraldatzen ari delako gizartea. *Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak* pertsonen arteko praktika linguistikoen berri jakiteko dugun tresna eraginkorrenetakoa dira. Bost urtean behin egiten den Euskal Herriko neurketa abian da, 2021ean gauzatu da landa-lana, eta erabileraren bilakaera eta ezaugarriak eza-gutuko dira emaitzak eskuratzekoan.

Norbanakoen arteko eta talde-mailako elkarrekintzei dagokionez, hizkuntza-ohiturak aldatzea da sarri euskararen erabilerari bidea zabaltzeko gakoa. *Aldahitz* proiektuan urteak daramatzate lan munduan gai hori jorratzen eta hortik abiatuta sortu diren bestelako adarrak ere garatzen ari dira; esaterako, euskararen gutxieneko ulermena lortzea ahalbidetzen duen *uler-saioak metodologia* edo *bikote eta lagun-taldeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko proba pilotuak*.

Azken hamarkadetan ikastetxeetan euskararen presentzia handitzeak eragin nabarmena izan du biztanleriaren belaunaldi gazteenen hizkuntza-profielean. Eskola-testuinguruko hizkuntza erabilerari jarraipena egiten diogu *Arrue* proiektuaren bidez eta ikasgelan ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko modu egokienak ikertzen jarraitu dugu *Berba-lapiko* proiektuaren bidez. Udalerri euskaldunenetan, gainera, haurren azken urteetako hizkuntza erabileraren bilakaera hobeto ulertzen saiatzeko *UEH proiektua* jarri da abian. Baina eskoletan euskaldundutako nerabe eta gazteek euskara erabiltzera urratsa egiteko, eskolaz kanpo ere gutxieneko baldintzak behar dituzte. *Euskara Kirolkide* proiektuan aztertzen da kirola bezalako jarduera gustagarri bateko talde-dinamikak joko dezakeen funtzioa.

Euskararen biziberritzearen beharrei erantzun nahian, beraz, hamaika proiektu ditu martxan Soziolinguistika Klusterrak, 2021eko Urteko Txosten honetan ikusiko duzun bezala. XX. mendearen bigarren erdian abiatu zen euskararen biziberritze prozesua; mendearen azken hamarkadan hasi zen eratzten euskal soziolinguistikaren ekosistema; orain, biziberritze prozesuari norabide egokia ematea dago jokoan eta soziolinguistika ezagutza zientifiko zorrotzak soilik erakutsi dezake bidea. Gizarte aldakor hau ahalik eta hobekien ezagutzeko, ikerketari behar besteko garrantzia eta bultzada ematea beste aukerarik ez dugu. Eta hori da Soziolinguistika Klusterraren inguruan biltzen garenok partekatzen dugun apustua.

Mertxe Mugika.
Soziolinguistika Klusterraren
lehendakaria

NORTASUNA ETA EGITURA

Nor gara, nora goaz eta nola antolatzen gara

Misioa

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren beharrei erantzuteko.

Hori lortzeko lanean diharduten eragileen soziolinguistika alorreko gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu.

Horretarako, proiektuak garatzen ditu elkarlanean, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

Bisioa

Soziolinguistika Klusterrak euskara biziberritzeko erreferentziazko ikergune izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile papera hartuz eta berrikuntza bultzatuz.

Balioak

- **Zientifikotasuna:** metodo zientifikoan oinarrituta zorrotasunez dihardu eta horrek eragileekiko autonomiaz jokatzeko zilegitasuna ematen dio.
- **Elkarlana:** osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren mar-koan.
- **Gizartearekiko ardura:** euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoa eta egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez. Gainera, arduraz jokatu du bestelako gaitan ere gizarte berdinzaleago baten alde, besteak beste, genero berdintasunean, iraunkortasunean eta diskriminazioen aurka.
- **Lurraldetasuna:** euskararen lurralde guztietan jarduteko bokazioa du.

2.1 ERABAKI-GUNEA

Batzar Orokorra

Bazkide guztiek dute Batzar Orokorraren erabakietan parte hartzeko eskubidea. Aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzen ditu. 2021eko martxoaren 18an egin zen Soziolinguistika Klusterraren *Ohiko Batzar Orokorra* online bileran. Irailaren 23an, berriz, *Ez-ohiko Batzar Orokorra* egin zen, atzeratu ezinezko zenbait erabaki hartzeko. Besteak beste lehendakari aldaketa onartu eta gauzatu zen, Mikel Irizarren ostean Mertxe Mugikak hartu zuen lehendakaritza.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Batzar Orokorrak izendatutako bazkideek osatzen dute. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartu eta egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia. 2021ean zehar Zuzendaritza Batzordearen osaeran zenbait aldaketa gertatu dira eta baita kideen ardura banaketan ere.

2021ean ondorengoek osatu dute Zuzendaritza Batzordea:

- Anaida Agirre (Emun Kooperatiba Elkarte)
- Maite Asensio (Gipuzkoako Urtxintxa Eskola)
- Estiñe Astorkia (Artez Euskara Zerbitzua)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)
- Maddi Etxebarria (Elhuyar Aholkularitza) - *Diruzaina*
- Eneritz Garro (HUHEZI – Mondragon Unibertsitatea)
- Mikel Irizar eta Ibon Manterola (Eusko Ikaskuntza)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra) -*Idazkaria*
- Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topagunea) - *Lehendakariordea*
- Mertxe Mugika (AEK) - *Lehendakaria*
- Miren Segurola (UEMA)
- Jon Zarate (Euskal Herriko Unibertsitatea)

BULEGO TEKNIKOA

Bulego Teknikoaren ardura da Soziolinguistika Klusterraren helburuak eta estrategiak aurrera eramateko, ikerketa, garapen eta berrikuntza nahiz ezagutza kudeatzeko proiektuak kudeatzea. 2021ean 10 lagun izan dira bulegoko kide:

- Olatz Altuna Zumeta
- Asier Basurto Arruti
- Olatz Bengoetxea Manterola
- Sara Bidarte Begiristain - *Praktikaria eta bekaduna*
- Beñat Garaio Mendizabal
- Isabel Godinez Hidalgo
- Maialen Iñarra Arregi
- Imanol Larrea Mendizabal - *Zuzendaria*
- Pablo Suberbiola Unanue
- Belen Uranga Arakistain

2.2 BARNE-PROIEKTUAK

2020 urtean onartutako 2020-2023 egitasmo estrategikoaren baitan, hainbat proiektu estrategiko garatzea aurreikusi zen. 2021ean ondorengoei heldu zaie:

SLK+ EGITASMOA

Egitasmo estrategikoan zehaztutako 2. ildo estrategikoari erantzuten dio: *Erakundearen funtzio propioa argitzea*. Soziolinguistika Klusterra erakunde singular/bakar egiten duena identifikatzeko prozesua da. Euskararen biziberritzean jokatzeko duen funtzioaz eta euskal gizarteko erakunde-sisteman duen tokiaz hausnarketa partekatuan oinarritzen da. Hausnarketa horretatik epe ertainera euskal soziolinguistika ikerketan eta erakundearen ezaugarrietan, harremanetan eta norabidean egin beharrezko egokitzapenak definitzea litzateke xedea. 2020an abiatu zen proiektuari jarraipena eman zaio 2021ean.

BAZKIDETZA PLANA

Egitasmo estrategikoan zehaztutako 3. ildo estrategikoari erantzuten dio: *Erakundearen arkitektura eguneratzea*. Bazkide izaeraren gaineko hausnarketa prozesutik abiatuta, erakundearen inguruko interes taldeak identifikatu eta bakoitzaren tokia eta parte hartzea zehazteko prozesua da, soziolinguistika esparruko sinergiak aprobetxatu eta optimizatzeko bidean urratsak eginez. 2021ean hasiera eman zaio plana osatzeko prozesuari.

KOMUNIKAZIO PLANA

Egitasmo estrategikoan zehaztutako 5. ildo estrategikoari erantzuten dio: *Eragina areagotzea*. Proiektuen komunikazio-lana sistematizatu eta hobetzea bilatzen da, besteak beste, argitalpen irizpideak berrikusiz. Nazioarteko ikergune eta eragileekin elkarrekintza areagotzeko bideak zabaldu nahi dira eta Euskal Herri osoan presentzia eta eragina bermatzeko bideak jarri. Sorland komunikazio agentziarekin landu da marka azterketa eta komunikazio estrategia definitzeko prozesua 2021ean. 2023ra arteko ekintza plana zehaztu da.

Euskara biziberritzeko erronkei erantzuten dieten 30 egitasmo

PROIEKTUAK

01. Aldahitz Ikerketa	9 or.
02. Hizkuntza-ohituren aldaketak Osakidetzan	10 or.
03. Hizkuntza ohituren aldaketa eremu afektiboan. Proba pilotuak Arabako Lautadan	11 or.
04. Arrue Proiektua	11 or.
05. Enpresaren Erantzukizun Linguistikoa (EEL) kudeatzeko gida. Eralan5	12 or.
06. Jendaurrean Erabili.....	13 or.
07. Gipuzkoa Berdinago.....	14 or.
08. Euskara Kirolkide	15 or.
09. Euskarabenturako Ikerketa	16 or.
10. Erandioko haur eta gazteen kontsumo- eta hizkuntza-ohiturak	16 or.
11. UEH ikerketa: Udalergi Euskaldunetako Haurrak eta Euskara	17 or.
12. Euskara Legutioko Moldera: hiztunak saretzen eta aktibatzen	18 or.
13. Hizkuntza Aniztasunaren Mapak.....	19 or.
14. Hizkuntza-Aktibazioa eta Gazteak Goierrin	20 or.
15. Getxoko egoeraren azterketa soziolinguistikoa	21 or.
16. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa. Euskal Herria 2021.....	22 or.
17. Hizkuntzen Erabileraren Neurketak UEMAko Udalerrietan eta Tolosaldeko Udalerrietan.....	24 or.
18. Hizkuntzen Erabileraren Neurketak Euskal Herriko Unibertsitatean....	25 or.
19. Hizkuntzen Erabileraren Neurketak Gipuzkoako Kirol Jardueratan....	26 or.
20. Hizkuntzen Erabileraren Neurketak UEMAko Udalerrietako Ikastetxeetan	26 or.
21. Euskararen Adierazle Sistema.....	27 or.
22. Berba-Lapiko	28 or.
23. Berbekin.....	29 or.
24. Ahozkotasuna Lantzeko Prestakuntza	29 or.
25. Badalab	30 or.
26. Txillardeggi-Hausnartu-Euskal Soziolinguistika Sariak.....	31 or.
27. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2021. Migrazioak eta Harrera Linguistikoa.....	32 or.
28. BAT Soziolinguistika Aldizkaria	33 or.
29. Soziolinguistika Albistaria	34 or.
30. Soziolinguistika.eus Webgunea.....	35 or.

3.1

Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak aztergai dituen lan-ildoak.

Zuzendaria | Pablo Suberbiola
Unanue

Aholkularia | Pello Jauregi Etxaniz
Koordinatzailea | Beñat Garaio
Garapen Taldea |

- Nerea Ibarluzea (Ahize-AEK)
- Nerea Mandiola (Artez)
- Beñat Gaztelurrutia eta Maite Unzalu (Elhuyar)
- Jone Urkizu (Emun)
- Malen Eugi (Euskarabidea)
- Sonia Isasi (Eusko Jaurlaritza)
- Nekane Jauregi (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Uler-saioak metodologiaren aplikatzaileak | Idoia Bengoetxea (Andoaingo AEK Euskaltegia), Oihane Uitzu (Andoaingo Euskara Zerbitzua), Aitor Puy eta Itziar Garitagoitia (Eibarko Udala Euskaltegia), Izaskun Urrestarazu (Ibarrako Euskara Elkarte), Kepa Urbieta eta Imanol (Azpeitiako Udala Euskaltegia), Alex Labaien eta Nerea Alzelai (Bergarako Udala Euskaltegia), Karmele Agirregabiria (Eskoriatzako Udala Euskaltegia), Itziar Larrañaga (Oñatikoko Udala Euskaltegia), Udane Migeltorena (Pasaiako AEK Euskaltegia), Oihana Lado (Soraluzeko AEK Euskaltegia), Leire Otxotorena (Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzua), Itxaso Vazquez (Artez) eta Maore Escudero (Gureak Fundazioa-Errenteria).

Aldahitz ikerketa

2021. urtean jarraipena eman zaio hizkuntza-ohituren aldaketa errazteko tresnen eta ezagutzen garapeneko lan-ildoari. Horretarako, azken urteetan sortzen ari garen sistema integraleko hiru tresnetatik, urte honetan nagusiki Uler-saioak metodologia landu da eta, neurri apalagoan, Ulerrizketa metodologia.

Uler-saioak metodologian, formaziorako materialak sortu dira bideo euskarrian, formazioa eman zaie trebatzaile berriei eta zazpi esperientzia praktikoa antolatu dira udal, euskaltegi eta enpresa ezberdinekin lankidetzan.

Ulerrizketa metodologian, 2020an egindako esperientzien analisiak landu dira, baina lan horien amaiera eta zabalkundea 2022ra atzeratu behar izan da.



➔ <https://soziolinguiстика.eus/eu/proiektua/aldahitz-ikerketa/>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)
- Nafarroako Gobernua. Euskarabidea Institutua
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



HABE
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra


Gipuzkoako Foru Aldundia

3.2

Osakidetzan hizkuntza-ohituren aldaketa euskararen aldera.

Zuzendaria | Pablo Suberbiola
Aholkularitza | Pello Jauregi
Koordinatzailea | Beñat Garaio
Partaideak | Eguzkiñe Gezuraga, Gontzal Lopez, Ainara Ibañez (Euskara Zerbitzua-Osakidetza), Alazne Iturriotz (GOMS-Osakidetza), Leire Sagastizabal (Barrualde-Galdakao, Osakidetza), Juanan Garcia (Goierri-Urola Garaia, Osakidetza), Amaia Ugartemendia eta Jabi Mentxaka (Araba - Osakidetza), Ander Manterola (Bilbo-Basurtu, Osakidetza), Amaia Beitia (Zuzendaritza Nagusia - Osakidetza) eta Guillermo Gonzalez (Barakaldo-Sestao, Osakidetza)



Hizkuntza-ohituren aldaketak Osakidetzan

Proiektu honetan Aldahitzen hizkuntza-ohituren aldaketak errazteko sortutako tresnak Osakidetzan aplikatzen dira, modu esperimentalean eta borondatezkoan.

2021ean sei esperientzia antolatu dira Osakidetzako euskara teknikariek lankidetzan. Hiru esperientzia “Biko eusle” metodologian oinarrituak (Galdakao, Gasteizen eta Zaldibian) eta beste hiru esperientzia “Eusle talde txikia” metodologia baliatuz (Azpeitian, Basurtun eta Gasteizen). Horrez gain, “Uler-saioak” metodologiaren lehen esperientzia antolatzeko urratsak egin dira (Barakaldon).

Esperientzia berriak egiteaz gain, 2018 eta 2020 artean eginiko esperientzien emaitzak eta ondorioak aztertu dira. Era berean, Osakidetzako euskara teknikariei formazioa eman zaie, aurrera begira tresna eta metodologia horien aplikazioan oinarri egokia eta autonomia eskuratzen joan daitezten.



➔ <https://soziolinguiстика.eus/eu/proiektua/hizkuntza-ohiturak-osakidetzan/>

3.3

Bikote eta lagun-taldeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko proba pilotuak.

Zuzendaria | Pello Jauregi
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

Koordinatzaileak |

Pablo Suberbiola

Asier Basurto

Partaideak |

Asier Lafuente (Lautadako Euskararen Komunitatea)

Hizkuntza Ohituren Aldaketa Eremu Afektiboan. Proba pilotuak Arabako Lautadan

Aldahitz Ikerketa proiektuaren baitan hizkuntza-ohituren aldaketarako metodologia batzuk (Eusle eta Ulerrizketa) garatu dira azken urteetan zehar, nagusiki lan-munduko testuinguan aplikatzeko xedez. Kasu honean, bikote eta lagun-taldean testuingurura, eremu afektibora, egokitze-ko eta aplikatzeko proba pilotuak egin ziren Arabako Lautada eskualdeko hainbat herritan 2020an. 2021ean, esku hartze horiek izan zuten eragina neurtu eta metodologia-egokitzapen horien aplikazioak izandako emaitzak ebaluatu dira.

➔ <https://soziolinguiстика.eus/eu/proiektua/hizkuntza-ohiturak-eremu-afektiboan/>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- Arabako Foru Aldundia
- Arabako Lautadako Kuadrilla



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



3.4

EAEko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileren azterketa.

Zuzendaria | Iñaki Martínez de Luna

Koordinatzaileak | Pablo Suberbiola, Belen Uranga, Maialen Iñarra eta Imanol Larrea

Partaideak |

- Ibon Olaziregi, Alfredo Castresana, Joseba Ibarretxe, Amaia Agirre eta Begoña Pedrosa (Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila).
- Eduardo Ubieta eta Arrate Egaña (ISEI)
- Josune Zabala (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- Iñaki Garcia (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Arrue

2019/20 eta 2020/21 ikasturteetan EAEko D ereduko ikastetxe publikoetan LH4 eta DBH2n kasu azterketa ikerketa egin da, euskararen erabileran lagungarriak diren ezaugarriak identifikatzeko.

Beste lan nagusia Ebaluazio Diagnostiko bidez ISEI jasotako EAEko ikasleen hizkuntza-erabilera datuen analisia izan da. Zehatzago, 2019an jasotako datuen analisia, eta 2011-2019 urteen arteko bilakaerarena. Besteak beste, egungo hizkuntza-erabilera datuak aztertzeko eta datuen irakurketa egiteko modurik egokienak landu dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko arduradunekin eta ISEIko lankideekin.

➔ <https://soziolinguiстика.eus/eu/proiektua/arrue-proiektua/>

Sustatzailea:

- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila



3.5

Enpresaren esparruan, gizarte erantzukizunarekin batera, erantzukizun linguistikoaren lantzeko eredia.

Zuzendaria | Auxkin Galarraga (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Koordinatzailea | Belen Uranga

Partaideak |

- Estiñe Astorkia (Artez)
- Alberto Telleria (Eusko Jaurlaritzza)
- Nekane Jauregi (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Juanjo Ruiz eta Amaia Baldia (Emun)
- Juanjo Perez eta Maddi Etxebarria (Elhuyar)
- Araitx Muguruza eta Txarles Ranero (AEK/AHIZE)

Enpresaren Erantzukizun Linguistikoa (EEL) kudeatzeko Gida. Eralan5

Gaur egungo eta etorkizuneko enpresetan hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa egokiaren testuinguruan euskararen erabilera sendotzeko xedeari erantzuten dio proiektuak.

Eralan egitasmoa 2008an abian jarri zen lan-munduan euskararen erabilera sendotzeko helburuarekin. Lau fasetan EPESA metodologia, Lan-munduko hizkuntza lidergoa eta Liderren portaera eredugarriak aztertu ditu, eta 5. fasean, berrikuntza eta erantzukizun sozialaren bidetik heldu dio.

Gida hau sortzea izan da 2021eko egitekoa. Gidaren bitartez, enpresa edota erakundeen kulturaren aldaketak sortu nahi dira, erantzukizun linguistikoa eta gizarte erantzukizuna balioan jarritz; Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat eginez euskarak enpresaren kudeaketa bere leku aitortua eta sustatua izan dezan sustatzeko tresna izango da.

Horretarako, konpromiso estrategikoak zehazten lagunduko du gidak, interes-taldeekin harremanak izaten eta kode etikoaren baitan ekintza-plana bideratzen, betiere euskararen erabilera, hizkuntza-aniztasunean sustatzeko helburuarekin.



➔ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/eralan-5/>

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

3.6

Komunikazio publikoan hizkuntza-praktika aurreraturantz ezagutza eta esperientziak partekatzen dituen praktika-komunitatea.

Koordinatzailea | Asier Basurto
Ikerketa-taldea |

- Beatriz Zabalondo (UPV/EHU) - Zuzendaria
- Irati Agirreazkuenaga (UPV/EHU)
- Eduardo Apodaka (UPV/EHU)
- Idurre Eskisabel (UPV/EHU)

Praktika komunitateko


erakundeak | AEK, Donostia Zinemaldia, Donostiako Udala, ELA sindikatua, Elhuyar Aholkularitza, Emun, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Legebiltzarra, Getxoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Guggenheim Bilbao Museoa, LAB sindikatua, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, Mutua eta Sakanako Mankomunitatea

Jendaurrean Erabili

Praktika komunitatea osatzen duten erakundeak harreman iraunkorrean izan dira, sarean eta presentzialki beren komunikazio publikoko esperientziak, kezka eta ezagutzak partekatuz. 4 saio antolatu dira horretarako espreski, bakoitza eduki desberdinen inguruan arduz:

- Martxoak 5 (Online): Pandemiaren eragina komunikazio publikoan ikerketaren emaitzak kontrastatzen.
- Ekainak 4 (Usturbi): Adimen artifiziala eta hizkuntza-teknologiaren joerak eta aplikagarritasuna - Elhuyar
- Urriak 22 (Leioa): Hizkuntza markagintza eta euskararen marka - Nik ikerketa taldea
- Abenduak 13 (Online): Arrakala digitala eta hizkuntza-arrakalak - Puntueus Fundazioa

Ikerketa-ildoari dagokionez, 2020an abiatutako lana borobildu eta itxi da: COVID-19aren eragina erakundeen komunikazio publikoan. Ikerketaren txostena argitaratu da eta hedabideen bidez zabaldu da. Gainera Bat soziolinguistika aldizkarian (euskaraz) eta Mediatika aldizkarian (gaztelaniaz) argitaratzeko artikulua bana bideratu dira.



- <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/jendaurrean-erabili/>
- <http://jendaurrean.eus/>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

3.7

Komunikazio publikoa hizkuntza berdintasunerantz urratsak emateko elkarrekin diharduten Gipuzkoako erakundeen taldea.

Koordinatzailea | Asier Basurto

Partaideak |

- Garbiñe Mendizabal (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Elene Arrazola (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Nekane Jauregi (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Erakunde kideak |

Adegi
Basque Culinary Center
Bera-bera eskubaloia
CAF
Deustuko Unibertsitatea
Donostiako Udala
DYA
Euskal Herriko Unibertsitatea
Fagor taldea
Gipuzkoa Basket
Gipuzkoako Foru Aldundia
Kaiku
Kutxa Fundazioa
Kutxabank
Laboral Kutxa
Mondragon Korporazioa
Mondragon Unibertsitatea
Mutualia
Real Sociedad
SD.Eibar

Gipuzkoa Berdinago

2016tik aurrera Gipuzkoa Berdinago adierazpena prestatu eta adostu zuten kideek lehendabizi eta bertan jasotako konpromisoak betetze aldera urratsak eman dituzte ordutik. 2021ean, liburuxka batean jaso da ibilbide hori. 30 orrialdeko liburuxkan proiektuaren filosofia, ezaugarri nagusiak, GB Adierazpenaren edukiak eta martxan jarritako ekimenak errepasatzen dira. Euskarriaren eta edukiaren diseinuak kideen barne-zabalpenari begira pentsatuak izan dira. GBko kide diren erakundeen barruan, proiektuko bileretan parte hartzen duten pertsonetatik haratago erabakiguneetan eta interesa izan dezaketen pertsonen artean zabaltzeko helburuari erantzuten dio.

Gainera, proiektuak kanpora begirako proiektzio handiagoa izateko eta bertan lantzen diren gaiak gizarteko beste sektore batzuekin partekatzeko asmoz, Gipuzkoa Berdinago Buletina martxan jartzea adostu zen. Urtean bitan, zabalduko da. Gipuzkoa Berdinago proiektuari lotutako albisteak, Gipuzkoako entitateek komunikazio publikoan hizkuntza berdintasunerantz emandako urratsen inguruak eta nazioartean komunikazio publikoaren esparruko berrikuntza eta praktika onen inguruak jasoko ditu. Buletina euskarri arina eta interesgarria izan daiteke komunikazioarekin lotutako ardurak dituzten pertsonentzat eta, arlo horretan, hizkuntzak kudeatzeko modu egokien bila ibili behar dutenentzat. 2021eko ekainean eta azaroan zabaldu dira Buletinaren lehen bi zenbakiak.

Urtearen amaieran Gipuzkoa Berdinago Foroa antolatu zen. Garazi Goia izan zen hizlari nagusia, BBC eta SKY ikus-entzunezko konpainietako esperientziatik, eremu horretan nazioartean gailentzen ari diren joeren berri eman zuen eta euskarak bere tokia izan dezan kontuan hartu beharreko gakoak azpimarratu zituen.



- <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/gipuzkoa-berdinago/>
- <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaber dintasuna/gipuzkoa-berdinago>

Sustatzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

3.8

Kirol-aisialdian euskara erabiltzeko gune babestuen inguruko ikerketa aplikatua.

Zuzendaria | Jone M. Hernández García (UPV/EHU – Antropologia Feminista Ikerketa Taldea (AFIT))

Koordinatzailea | Maialen Iñarra Arregi

Garapen-taldekideak |

Nekane Jauregi (GFA – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza), Beñat Egues (GFA – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza), Jon Aizpurua (EJ – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Danel Lauzirika (EJ – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Oihana Zunzunegi (GFA – Kirol Zuzendaritza), Joseba Angulo (EJ – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza), Estiñe Astorkia (Artez Euskara Zerbitzua), Aritz Olagoi (Kirolean Euskaraz)

Ikerlariak |

Jaime Altuna Ramirez (UPV/EHU – Antropologia Feminista Ikerketa Taldea (AFIT)), Lucia Moreno Ortega. Antropologoa, Josu Ozaita Azpiroz. Antropologoa, Uxue Ruiz Romo. Antropologoa, Ederne Urrestarazu García. Antropologoa.

Klubak |

- Bera Bera RT
- Gaztedi Rugby Taldea
- Gernika Rugby Taldea
- Judizmendi Igeriketa Kluba
- SD Amorebieta
- UDA Aretxabaleta

Euskara Kirolkide

Euskara Kirolkide proiektuak 2020. urtean ekin zion bere ibilbideari, honako helburu nagusi honekin: kirol kluba euskararen babesgune gisa definitzea. Hau da, euskararentzako kirol aisialdi babestua zertan datzan zehaztu nahi da, kirol klubaren ikuspegitik. Gainera, proposamen praktikoak irudikatu nahi dira kirol klubentzat, babesgune izateko bide hori egin dezaten.

2021ean, ikerketaren landa-lanaren lehen fasea garatu da. Lekuan lekuko lan horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko sei kirol klub ezberdinetan murgildu gara: Bera Bera RT, Gaztedi Rugby Taldea, Gernika Rugby Taldea, Judizmendi Igeriketa Kluba, SD Amorebieta eta UDA Aretxabaleta.

Ikerketan zehar eskuratutako edukiak balio praktikoa izan dezaten, ikertze-ko modua eraldatu da, hiru gidalerro oinarritzat hartuta: ezagupen ibiltaria (mugimenduan dagoen pentsamoldearen eraikuntza), zentzumene-tnografia (ikerlaria testuinguruarekin harremanetan jarriz eraikitzea) eta ezagupen eraldatzailea (testuinguruan eragitea, aldaketa bultzatzea).

Horretarako, metodologia kualitatiboa erabili da. Hau da, aurrez aipatutako sei klubetan 28 behaketa-saio eta 30 elkarrizketa egin dira, bertako zuzendaritza-taldekideekin, langileekin zein bolondresekin, kirol klubak euskararen babesgune bihurtzeko egin daitekeena irudikatuz.

Egindako lan guztia eta klubetan ikusitakoa, jasotakoa eta bizitutakoa partekatzeko, webgune propioa sortu zaio proiektuari: www.euskarakirolkide.eus. Bertan, informazio ugari kontsulta daiteke, mota desberdinetako euskarriren bidez: audioak, bideoak, argazkiak, marrazkiak, gidoiak, artikulu zientifikoak, txostenak...

Horrez gain, kirol klubek euskararen babesgune izateko urratsak eman ditzaten, klubetako arduradunei begirako tresna praktikoa baten prototipoa osatu da. 2022ko urtarrilean, zirriborro horren kontrastea egingo da kirol munduko teknikariekin nahiz aholkulariekin.



➔ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/euskara-kirolkide/>

➔ <https://euskarakirolkide.eus/>

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.9

Ikerketaren diseinua eta garapenerako aholkularitza.

Koordinatzailea | Izaro Arruti
(Euskarabentura)
Partaideak |
Olatz Altuna, Asier Basurto eta
Imanol Larrea

Euskarabenturako ikerketa

Euskarabenturan urtero 16-17 urteko gazteak elkartzen dira udan Euskal Herria elkarrekin euskaraz ezagutzeko asmoz. Ikerketa lanak egiten dira espedizioak parte hartzaileengan duen eragin soziolinguistikoa ezagutzeko. Ikerketa egiteko metodologiari buruzko aholkularitza eman zaie antolatzaileei fase guztietan: prestaketa eta diseinu-lanetan, landa lanean, datuen azterketan eta zabalpenean.

3.10

Haur eta gazteen hizkuntza-erabileran eragina izan dezaketen faktoreen azterketa eta esku hartze aukeren gaineko hausnaketa.

Koordinatzailea | Beñat Garaio

Erandioko haur eta gazteen kontsumo- eta hizkuntza-ohiturak

Proiektu hau udalarekin kezka batetik dator, Erandioko haur eta gazteen euskararen erabilera ezagutza datuetatik urrun daudelako. Belaunaldi gazteenen aisialdia aztertzeko honako azterketak burutuko dira:

- Herriko hainbat adierazleren eragina aztertu, hala nola, ezagutza, erabilera, matrikulazio datuak eta kultur agenda
- Kultura elkarte, kirol-talde eta udalaren eskaintza nolakoa den, bai eduki aldetik, bai hizkuntza aldetik, bai erabiltzaileen aldetik
- Herriko haur eta gazteen hautuak eta interesak ezagutu, baita euren eguneroko aisialdia ikertu ere
- Herriko eragileekin batera etorkizunera begirako oinarriak finkatu, udalak esku-hartu dezan

2021ean lehenengo puntua burutu da eta eragile eta haur-gazteei pasatu beharreko galdetegiak prestatu dira.

3.11

Udalerri euskaldunetako haurren euskaratik gaztelaniara erabilera-aldaketa haien bizipenetan oinarrituz ezagutzeko ikerketa.

Zuzendaria | Eider Saragüeta (DREAM Ikerketa taldea, EHU)
Koordinatzailea | Beñat Garaio
Partaideak |

- Mariate Bizkarra (IkHezi ikerketa-taldea, EHU)
- Iñaki Eizmendi (EBETE)
- Garikoitz Goikoetxea (UEMA)
- Jone Goirigolzarri (Deustuko unibertsitatea)
- Karmele Perez (HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea)

➔ <https://soziolinguiстика.eu/eu/proiektua/ueh-ikerketa-udalerrri-euskaldunetako-haurrak-eta-euskara/>

UEH ikerketa: Udalerri Euskaldunetako Haurrak eta Euskara

UEMAK eta Soziolinguiстика Klusterrak euskararen erabilera neurketak egin berri dituzte udalerrri euskaldunetan kokatutako 35 ikastetxetan eta zerrenda horretatik aukeratu dira "UEH ikerketa"-n aztertuko diren 7 eskolak.

Hauexek dira ikerketa-egitasmo honen helburu nagusiak:

- Hurrek adin gero eta goiztiaragoetan gaztelaniaz hitz egiteko faktoreak identifikatzea, errealitatea zuzenean euren bitartez ezagutzuz
- Faktore horietatik abiatuta, hizkuntza aldaketarako estrategiak proposatzea

Bestalde, bi zeharkako helburu ere jorratzen dira ikerketa honetan. Alde batetik, UEMAko udalerrietako hizkuntza-ohituren irudi orokor kualitativoa osatzea, eta bestalde, ikerketako parte-hartzaileen artean hausnarketa soziolinguiistikoa bultzatzea (haurrengan bereziki).

2021eko maiatzean jarri zen abian proiektua eta lehen hilabeteetan diseinu orokorra egin zen eta lan-taldea osatu zen. Ondoren, landa lanerako tresnak prestatu ziren eta udazkenetik 2021 amaierara arte hurrekin azterketa burutu zen.



Babesle-laguntzaileak:

- Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Nafarroako Gobernua. Euskarabidea Institutua



3.12

Gazteen eta guraso berrien hizkuntz praktika, ideia eta bizipenei buruzko ikerketa-proiektua.

Zuzendaria | Jone Miren Hernandez
Koordinatzailea | Olatz Altuna
Ikerlaria | Josu Ozaita

Euskara Legutioko Moldera: Hiztunak Saretzen eta Aktibatzen

Hiru helburu ditu ikerketak: hizkuntza praktikak, ideologiak eta bizipenak aztertzea; egun indarrean dauden hizkuntza-sareak ezagutzea; eta, etorkizuneko esku-hartzeetako gako baliagarriak lortzea.

Informazioa eskuratzeko behaketak eta elkarrizketak egin dira, bakarka zein taldeka. Horrez gain, buzingintza tailer bat antolatu da Legutioko Ollerias Buztingintza Museoarekin lankidetzan.



3.13

Euskal lurraldeetako hizkuntza aniztasuna ahalik eta hobekien ezagutzeko proiektu-multzoa.


Zuzendaria | Xabier Aierdi
Koordinatzailea | Belen Uranga

Hizkuntza Aniztasunaren Mapak

Biztanleriaren jatorria aztertuta hizkuntza-aniztasunaren ezaugarri nagusiak identifikatu dira, alegia, zein izan daitezkeen jatorri atzerritarreko hiztunen hizkuntzak. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta EAEko hizkuntzen mapak osatu dira aurreko urteetan. Azterketa horretatik eratorritako datuak eta ondorioak modu desberdinetan hedatu dira. Gipuzkoan ikerketa kua-
litatiboen bitartez, biztanleriaren hizkuntza-jarreretara lehen hurbilketa ere egin da.

Lan-ildo horri jarraipena eman zaio Errenteriako Hizkuntzen maparen bitartez. Udalerrri mailako azterketak auzoetako errealitatea ezagutzeko eta bertako biztanleriaren beharrak edo nahiak hurbilgotik identifikatzeko balio du. Hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa egokiagoa egiteko oinarria da.

Gipuzkoako azterketatik abiatuta, ikerketaren emaitzak zabaltzeko eta hizkuntza-aniztasunaren kudeaketari begirako zenbait mezu zabaltzeko dibulgazioko ikus-entzunezko laburrak prestatu dira.



- <https://gipuzkoa.eus/gipuzkoakohizkuntzak>
- <https://soziolinguiстика.eus/eu/proiektua/gipuzkoako-hizkuntza-aniztasunaren-mapa/>

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Errenteriako Udala

3.14

Gazteen hizkuntza-aktibaziorako ikerketa-ekintza proiektua.

Zuzendaria | Zesar Martinez
(UPV/EHU – Parte Hartuz
ikerketa-taldea)

Koordinatzailea | Maialen
Iñarra

Partaideak |

- Miren Uriarte (UPV/EHU – Parte Hartuz ikerketa-taldea)
- Patxi Saez (Aittu! Euskara Elkarte)

Hizkuntza-aktibazioa eta Gazteak Goierrin

Proiektu honen abiapuntu da 2015-2019 urte bitartean garatutako “Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa” proiektua. Bertan, euskararen jiran herritarrek aktiba zitezen, gakoak identifikatu ziren, baita balizko prozesua proposatu ere. Hala, 2021ean, aktibazio sozialaren lan-ildo honi jarraipena eman zaio. Zehazki, proiektuak utzitako emaitzek Goierrin eduki dezaketan garapena aztertu, landu eta abiatu da.

Horretarako, bi fase nagusi burutu dira. Lehenik eta behin, Goierriko hizkuntza- eta aktibazio-egoera aztertu da, euskalgintzako hainbat eragile-aren laguntzarekin. Horrela, proiektuaren abiaburutzat udalerrri bat hautatzeko erabakia hartu zen: Beasain. Besteak beste, hizkuntzari lotutako gazteen aktibazio sozialaz aritzeko aukera ikusi zen bertan.

Bigarren fase batean, beraz, Beasainen abiatu den proiektu berria diseinatu da. Beasaingo gazteekin hizkuntza-aktibazioa sustatze aldera, ikerketa-ekintza parte-hartzailearen metodologian oinarri da ikerketa-proiektu berria, eta honako helburu hauek zehaztu dira:

- Beasaingo Aittu! zein Aittu Gazte! ekimenen sorkuntza aztertzea eta hizkuntza-aktibazioaren arloan lorturiko aurrerapausoak modu parte-hartzailean gogoetatzea.
- Ekimen horien protagonistak ikerketaren prozesuaren parte eginez, orain arte eman dituzten urratsak gogoetatzea eta aurrera begirako indarrak eta asmoak sendotzea.
- Beasaingo Aittu-ren esperientzia aztertuz eta eztabaidatuz, Goierriko beste herrietan kontuan hartzeko moduko gakoak eta orientabideak zehaztea eta (herri horietako eragileekin) sustatzea.

Helburu horiei erantzuteko ikerketa-prozesua abiatu da 2021ean, eta, tailerren bidez, hizkuntza-aktibazioaren ikuspegitik Beasainen azken urteetan egindako ibilbidea landu da, herritarrekin (gazte nahiz heldu).



Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.15

Udalerriko egoera soziolinguistikoa azterketa bigarren mailako datu-iturrien ustiaketa bidez.

Koordinatzailea | Beñat Garaio
Partaidea | Xabier Saralegi
(Elhuyar)

Getxoko Egoeraren Azterketa Soziolinguistikoa

2010ean Getxoko udalak herriko egoera soziolinguistikoa xehe-xehe aztertzen zuen liburuxka bat argitaratu zuen. 10 urte ondoren, SLK-rekin elkarlanean gaurkotuko dira datuak.

Txosten horretan honako aztergaiak jorratzen dira: bilakaera demografikoa, hezkuntzaren egoera, adierazle sozioekonomiko ezberdinak, aisialdia, hizkuntza gaitasuna eta erabilera eta hizkuntza paisaia, besteak beste. Soziolinguistika Klusterrak aztergai horietako batzuk aztertzen ditu.

2021ean komunikabideen kontsumoa, udalerriko kultur-agenda, merkatal-guneen hizkuntza paisaia eta herriko txiolarien azterketa burutu dira.

3.16

Euskal Herriko kaleetako hizkuntza-erabilerari buruzko behaketa bidezko ikerketa kuantitatiboa.

Zuzendaria | Olatz Altuna
(Soziolinguistika Klusterra)

Koordinatzaileak | Maialen Iñarra, Belen Uranga, Isabel Godinez eta Asier Basurto

Batzorde Zientifikoa |

Eneko Gorri, Iñaki Iurrebaso, Iñaki Martínez de Luna, Paula Kasares eta Xabier Isasi

Lurralde Arduradunak |

Arrate Arbaiza, Lorea Zulaika eta Oianko Garde (AEK)

Datu Basearen kudeaketa |

Nestor Urrestaratzu

Aholkularitza estatistikoa |

Eñaut Urrestaratzu

Azpiegitura informatikoa |

IZT

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa. Euskal Herria 2021

Kaleko erabileraren datuak oso garrantzitsuak dira, hizkuntzaren biziberritze-prozesuan inplikaturiko pertsona eta erakundeentzat, zuzenean behatutako erabileraren berri eskaintzen digutelako. Datu horiek ez dira, ez aitortuak (hiztunaren autopertzepzioan oinarritutakoak), ez jarrera edo motibazio baten isla.

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak 80ko hamarkadan erabiltzen hasi zirenetik ibilbide luzea egin duten ikerketa-lanak dira. Euskal Herri mailako neurketa 1989an egin zen lehen aldiz eta orduetik ezinbesteko erreferentzia da euskararen biziberritzearen inguruko soziolinguistikan.

Hizkuntzen Erabileraren lehenengo neurketa 1989an egin zen eta 2021ean zortzigarren edizioaren landa-lana egin da. Beraz, ikerketak kaleko era-bileraren bilakaera erakusten digu, lurraldez lurralde eta hiztunaren adinaren eta sexuaren arabera, besteak beste.

Hiru helburu nagusi ditu:

- Euskal Herriko kaleetako hizkuntza-erabilerari buruz datu enpirikoak eskuratzea.
- Euskararen kaleko erabilerari buruzko datuak aztertzea eta interpretatzea.
- Hizkuntzen kale erabileraren bilakaera ezagutaraztea, euskararen biziberritze-prozesuari begira hausnarketarako, hizkuntza politikak erabakitzeke eta hizkuntza-plangintza diseinatzeke balio dezan.



Azken hamarkada eta urteetan gizarte bitzta era esanguratsuan aldatu eta baldintzatzen duten fenomenoak ezagutzen ari gara: globalizazioa, digitalizazioa, migrazioak... Are nabarmenagoa izan da aldaketa giroa 2020tik aurrera COVID19aren pandemiaren eraginpean. Gizarte aldaketa handien testuinguruan inoiz baino garrantzitsuagoa da hizkuntzen erabileraren bilakaera arretaz aztertzea; bai maila orokorrean eta baita tokian tokiko mailan ere.

2021eko irailean eta urrian 143 udalerritako kaleetan 580.000 solaskideren elkarrizketak behatu dira. Horretarako 336 neurtzaile aritu dira lanean. Neurtzaileak espazio irekietan solasean ari direnen elkarrizketen hizkuntza jaso dute, berariaz sortutako telefono mugikorretarako aplikazio baten bidez. Aplikazio mugikorrek landa-lanaren jarraipen estua eta une orokoa egiteko aukera eman du.

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak Udalerrietan

Euskal Herriko neurketaren urte berean egiten dira udalerrri mailako neurketak hainbat herritan. Honela, herri eta auzo mailako datuak eta joerak alderatu egin daitezke datu eta joera orokorrekin, beste herri eta eskualdeetakoekin. 2021eko udazkenean 57 udalerritan egin da landa-lana, udalerrri mailako neurketetan.



➔ <https://soziolinguiстика.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021/>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua. Euskarabidea Institutua
- Arabako Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Kutxa Fundazioa



Bilboko Udala, Vitoria-Gasteizko Udala, Iruñeko Udala, Donostiako Udala, Sakanako Mankomunitatea, Villabona-Amasako Udala, Gernika-Lumoko Udala, Lezoko Udala, Ordiziako Udala, Zarautzko Udala, Zaldibarreko Udala, Azpeitiako Udala, Agoizko Udala, Debako Udala, Zumaiako Udala, Getxoko Udala, Lekunberriko Udala, Eibarreko Udala-Akebai, Erandioko Udala, Hernaniko Udala, Oiartzungo Udala, Antzuolako Udala, Anoetako Udala, Errenteriako Udala, Oñatiko Udala, Legazpiko Udala, Zestoako Udala, Bermeoko Udala, Txorierriko Mankomunitatea, Laudioko Udala, Urretxu Udala, Zumarragako Udala, Astigarragako Udala, Urduñako Udala, Usurbilgo Udala, Andoingo Udala, Hondarribiako Udala, Aittu Euskara Elkarte, Ermuako Udala, Galdakaoko Udala, Arrasateko Udala, Eskoriatzako Udala, Pasaiaiko Udala, Urnietako Udala, Aretxabaletako Udala eta Gorbeialdeako Kuadrilla

3.17

*Udalerri euskaldunetako
kaleetan euskararen
erabileraren neurtzeko
ikerketaren bigarren
saioa*

Zuzendaria | Olatz Altuna
Koordinatzailea | Belen
Uranga

Hizkuntzen Erabileraren Neurketak UEMAko Udalerrietan eta Tolosaldeko Udalerrietan

UEMAko eta Tolosaldeako 93 herritan kaleko erabileraren neurketak egin dira. Soziolinguistika Klusterra ikerketaren jarraipen teknikoaz arduratu da. Landa-lanean orotara 70.000 elkarrizketa baino gehiago behatu dira. Euskal Herriko Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketan erabiltzen den metodologian oinarritu da datu-bilketa.

2017an egin ziren lehenengo aldiz UEMAko eta Tolosaldeako herrietan erabileraren kaleko neurketak. Lau urte beranduago erabilerak izan duen bilakaera ezagutuko dugu, herriz-herri, euskaldunen eta biztanle kopuruaren arabera, eta hiztunaren adina eta generoaren arabera, besteak beste.



➤ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-uemako-udalerririk-eta-tolosaldea/>

Partaide-babeslea:

- Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)



3.18

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako EHUren campusetan behaketa bidezko erabilera neurketak.

Koordinatzailea | Belen Uranga

Hizkuntzen Erabileraren Neurketak Euskal Herriko Unibertsitatean

Unibertsitatean euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin UPV/EHUK aurrera daraman "Aktibatu" proiektuaren baitan kokatzen da proiektua. Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Errektoreordetzak zenbait fakultatetako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabilera behatzeko egitasmoa jarri zuen abian 2017-2018 ikasturtean. Orduetik hona, hamabost fakultatetako euskararen erabilera behatu da.

2021-2022 ikasturtean, zazpi fakultate berritan egin da datu-bilketa: Gas-teizko Ingeniaritza Eskolan, Gipuzkoako Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatean, Kimika Fakultatean, Psikologia Fakultatean eta Zuzenbide Fakultatean, eta, Bizkaian, Arte Ederren Fakultatean, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean eta Zuzenbide Fakultatean.



➤ <https://soziolinguintika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-neurketak-euskal-herriko-unibertsitatean/>

Babesle-laguntzaileak:

- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Donostiako Udala
- Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza

3.19

Gipuzkoako hainbat udalerritako kirol-partidetan euskararen erabilera neurtzeko proiektua.

Koordinatzailea | Beñat Garaio
Partaideak |
Helene Armentia (Elhuyar)
Juanjo Pérez (Elhuyar)

Hizkuntzen Erabileraren Neurketak Gipuzkoako Kirol Jardueratan

Kale erabileraren neurketa eta kirol esparruan euskara bultzatzeko egitasmoak uztartuz haur eta gazteek kirol partidetan euskara zenbat erabiltzen duten neurtzea da helburu. Horretarako, kale neurketaren metodologia moldatzen da lehiaketek dituzten berezitasunetara (parte-hartzaileak, taldeak, epailea, etab.).

Udalekin sarearen barruan dauden udalerrri batzuek bakarrik hartuko dute parte eta neurketa udalerrri bakoitzeko gazteek egingo dute. Behin udalerrriak eta kirol-taldeak aukeratuta, SLK-k neurtzaileak trebatzen ditu, neurketa-prozesua gainbegiratzen du eta datuen azterketa egiten du.

Pandemia dela eta, 2021ean datu-baseen eta neurketarako erabiltzen den app-aren moldaketa besterik ez dira egin.

Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia.
Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.20

Eskoletako jolastokietako hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko ikerketa.

Zuzendaria | Olatz Altuna
Koordinatzailea | Belen Uranga

➔ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-neurketak-ikastetxeetan-eta-kirol-taldeetan/>

Hizkuntzen Erabileraren Neurketak UEMAKo Udalerrietako Ikastetxeetan

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren oinarri metodologikoa baliatuz, hainbat gune eta jardueretako (ikastetxeetan, ekitaldi berezietan, eskolaz kanpoko jardueretan...) neurketa bereziak egiten dira. Ikerketa hauen helburua gune horietan erabiltzen den hizkuntza erabilera kuantifikatzea da. Informazio hau erabilgarri bihurtzen da euskararen erabilera areagotzeko esku-hartze eremuak identifikatu eta horietan eragiteko lehentasunak definitzeko.

UEMAk haurren eta nerabeen euskararen erabilerak hizkuntzaren biziberritzean duen garrantzia ikusirik, eskolan ikasleen hizkuntza-erabilera zer nolakoa den ikertu beharra identifikatu du. Helburu horri begira, zenbait udalerritan ikastetxeetako jolas garaiko hizkuntzen erabileraren neurketa egin da, ondorengo aldagai hauek kontuan izanda:

- Jolasgaraian hizkuntzen erabilera orokorra
- Sexu-generoaren araberako erabilera
- Ikasmilen araberako erabilera

Eremu horren berezitasunak medio, metodologian zenbait egokitzapen egin dira. Emaidza interesgarriak lortu dira eta udalerrri horietako errealitate soziolinguistikoaren beste alde bat erakusten dute.

Babesle-laguntzailea:

- Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)



3.21

Euskararen egoera eta bilakaeraren adierazle nagusien biltegia.

Aholkularitza teknikoak |
Soziolinguistika Klusterra
Koordinatzailea | Olatz Altuna

Euskararen Adierazle Sistema

Gizartearen esparru desberdinetan hizkuntzak une jakin batean zein zabalikunde eta zein bilakaera duen zehatz-mehatz azaltzeko tresna da EAS.

Proiektuak ibilbide luzea eta oparoa izan du 2013tik hona. Arloz arlo adierazleak elikatzen eta adierazle-sistema aberasten ari da. Azken ekarpenak ingurune digitaleko egoerari lotutako datuetan egin dira. Gainera Ingurune Digitalari buruzko mintegia antolatatu zen 2021eko urriaren 27an, Donostiako Carlos Santamaria zentroan. Bertan parte hartu zuten Maite Goñi Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde atal bereziko zuzendariak, Galder Gonzalez Euskal Wikilarien Kultura Elkarteko programa arduradunak, Olatz Arregi eta Xabier Arregi EHUKo Ixa taldeko kideek, Josune Zabala Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza ikerketa eta koordinazio zuzendariak eta Jon Aizpurua Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlanetako arduradunak. Urteko aldizkari monografikoa ere gai honi eskaini zaio 2021ean.

Orain arteko adierazle bilduma osoa ikusgai dago EASen webgune publikoan. Gaur egun, 50 adierazleren informazioa eskura daiteke, euskararen lurralde osoari dagozkionak.

➔ <https://www.euskadi.eus/eas/>

Proiektuaren sustatzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
- Nafarroako Gobernua. Euskarabidea institutua
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Arabako Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.22

*Testuinguru
erdaldunetako ikasleen
euskarazko ahozko
gaitasuna garatzeko
metodoak.*

Zuzendariak | Agurtzane
Azpeitia eta Idurre Alonso
(Mondragon Unibertsitatea.
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea)

Koordinatzailea | Olatz
Bengoetxea

Partaideak |

- Rontegi eskola
- Muskizko ikastola
- Berritzeguneetako
Normalizazio aholkulariak
- EHUko ELEBILAB ikertaldea

Berba-lapiko

Berba-lapiko proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta kompetentzian sakontzeko proposamena da, batik bat testuinguru sozio-linguistiko erdaldunei erreparatzen diena.

2017-2018 ikasturtean jarri zen abian bi ikastetxeetan eta geroztik Lehen Hezkuntza osora zabaldu da. Ulertuta hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarrituta eraiki daitekeela, testuinguru erdaldunetan ikasleen ahozko aurrerapenetan eragiten duten adierazleak bilatu nahi dira. Era berean, diseinatutako metodologia ikertu eta egokitu da, eta irakasleen prestakuntzan sakondu da.

2021n metodologietako bat (Hizkuntza-errutinaren metodologia) Lehen Hezkuntzako 2. mailan frogatzeko lanak abiatu dira. Dena den, COVID-19a tarteko, esku-hartze horiek eten egin behar izan dira eta 2022/2023 ikasturterako prestaketei ekin zaie. Era berean LH1. mailako ikasleen ahozko kompetentzien diagnostia abiatu da. Berba-lapiko proiektua antzeko testuingurutan dauden ikastetxeetara nola hedatu aztertu da, gainera.

➤ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/berba-lapiko-proiektua/>

Sustatzailea:

- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila



3.23

Ikasgelan berbazko komunikazioa indartzeko egitasmoa.

Zuzendaria | Ines Garcia-Azkoaga (EHU)

Koordinatzailea | Olatz Bengoetxea

Partaideak |

- Mariaren Lagundia Ikastola
- Aranzadi Ikastola
- Ipintza Bergarako Institutua
- Bergarako Udala.

➔ <https://soziolinguiстика.eu/s/proiektua/berbekin/>

Babesle-laguntzaileak:

- Bergarako Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila
- Mariaren Lagundia Ikastola
- Aranzadi Ikastola



Berbekin

Berbekin proiektuari 2014an eman zitzaion hasiera, eta helburutzat jarri zen aztertzea eskola-eremuetan, irakaslearen esku hartzearen bitartez euskararen erabilera sustatzeko sortzen ziren aukerak. Eta era berean, zeintzuk ziren estrategia egokienak ikasleek euskaraz gehiago eta hobeto egin zezaten.

Aurreko ikasturteetan, “edozein irakasle da hizkuntza irakasle” pentsamendutik abiatuta, ikasgelan euskararen erabilera eta gaitasuna hobetzen laguntzen duten praktika onak finkatzeko eta sistematizatze bidea egin da. Zehazki, 2019an indar berezia egin zen, irakasle guztiek ahozko hizkuntzaren mesedetan esku-hartzeko gakoak ezagutzeko eta ondoren, diseinatutako praktikak gela barruan inplementatzeko.

2021en xede horien gainean jarraitu da lanean, eta ikastetxeei aholkulartza eskaini zaie. Ikastetxeetako talde-motorrekin aritu gara estuki lanean.

Horrez gain, proiektuko emaitzak zabaltzeko lanak hasi dira. Egitasmoan zehar eskuratutako ezagutza eskuragai jartzeko bidea diseinatu da.

3.24

Ahozko komunikazioaren lanketarekin lotutako ikastaro eta mintegiak.

Zuzendaria | Olatz Bengoetxea

Koordinatzaileak | Olatz Bengoetxea eta Isabel Godinez

Partaideak | Ikastetxeak, Berritzeguneak, euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, aisialdiko begiraleak

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila



Ahozkotasuna Lantzeko Prestakuntza

Arlo honetan garatu diren egitasmoak eta ikerketa-proiektuak dira prestakuntza hauek antolatzeko abiapuntu. Formakuntza eskaintzaren zati bat IRALE programaren baitan txertata dago, baina hortik kanpo ere eskaini dira zenbait saio.

IRALEren bidez *13 Ahozko hizkuntzaren lanketa Hizkuntza Normalizazioaren altxotik* formazioa eskaini da: ahozkotasuna ikastetxe bakoitzeko testu-guru soziolinguiстикoaren behatokitik aztertuta, ahozko hizkuntza lantzeko metodologietan sakontzeko, besteak beste.

Eleaniztasunerantz programaren baitan edo bestelako eskaera egokituei ere erantzun zaie zenbait ikastetxetan mintegi laburrak eta ikastetxeetako ahozko hizkuntzaren mapa aztertze saioak antolatuz, besteak beste.

3.25

*Hizkuntza
berrikuntzaren
laborategia sortzeko
prozesua.*

Partaideak | Asier Basurto eta
Imanol Larrea

Erakunde kideak |

- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Soziolinguistika Klusterra (+ AEK,
Emun eta Elhuyar)
- Euskalgintzaren Kontseilua
- Euskal Irrati Telebista
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Langune
- Arantzazulab
- Euskaltzaindia

Badalab

2016tik abiatutako bidea da Badalaben sorrerara heldu dena. Laborategiaren diseinu lanak bukatuta, 2020ko udazkenetik 2021eko uztaiera Badalab eratzeko urratsak eman dira eta hortik sortu da partzuergoa, euskararen eta berrikuntzaren eremuko denetarik eragileen parte hartzearekin. Soziolinguistika Klusterra eta bere bazkide batzuk Gobernu Batzordeko kide izendatuak izan dira.

Eratze lanez gain, Gipuzkoa Taldean deialdiko proiektuen bidelaguntza egiten jardun du Soziolinguistika Klusterrak, hizkuntza-berrikuntza ikuspegi txertatzeko aholkularitza emanaz.



Sustatzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoako Foru Aldundia

3.26

Euskal soziolinguistikaren eremuko hausnarketa eta ikerketa lanen lehiaketa.

Koordinatzailea | Asier Basurto

Partaideak |

- EHU/UPV
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza



TXILLARDEGI-HAUSNARTU Soziolinguistika Sariak

2008. urtean sortu ziren Hausnartu soziolinguistika sariak, eta 2019an, EHU/UPVrekin elkarlana abiatzarekin batera, Txillardegí-Hausnartu Sariak izatera pasa ziren.

Lehiaketaren helburua euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena da; esparru horretako ikerlarien lana bultzatzea, eta beste zenbait esparrutakoak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea (soziologiatik, hizkuntzalaritzatik, zientzia politikoetatik, psikologiatik, antropologiatik edota komunikazio-zientzietatik, esaterako).

2021ean hiru lan hauek izan dira sarituak:

- > **Lehen saria:** *Hezkuntza soziolinguistikoa: Euskal Herrian han eta hemen dauden material eta baliabideen bilketa, azterketa eta sailkapena.* Izaro Arruti eta Sandra Prieto
- > **Bigarren saria:** *Euskararen marka: marketinetik hizkuntza plangintzara.* Estitxu Garai, Irati Agirreazkuenaga, Irene Garcia, Sergio Monge, Angeriñe Elorriaga, Patxi Azpillaga, Ainara Miguel, Naroa Jauregizuria eta Koldo Atxaga (Nik ikerketa taldea)
- > **Hirugarren saria:** *Kulturaren eragina hizkuntzaren biziberritzean. Behin-behineko ondorio batzuk.* Iñigo Beitia

Abenduaren 15ean egin zen Gasteizen, EHUren Lascaray ikergunean Sarien banaketa ekitaldia. Bideoetan jasota geratu dira bertan saridunek egindako lanen aurkezpenak. Horrez gain, Bat aldizkariaren 2022ko zenbaki batean argitaratuko dira saritutako hiru lanak eta lehiaketan parte hartu duten beste zenbait.



➔ <https://soziolinguistika.eus/txillardegí-hausnartu>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.27

Euskararen soziolinguistikaz hausnartzeko, eztabaidatzeko, ezagutza partekatze eta proposamen berriak egiteko urteroko hitzordua.

Koordinatzaileak | Belen Uranga, Beñat Garaio, Imanol Larrea eta Asier Basurto



Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2021. Migrazioak eta Harrera Linguistikoa

Euskal Soziolinguistika Jardunaldien hamahirugarren edizioa azaroaren 16an izan zen. Migrazioen eta harrera linguistikoaren inguruan euskararen biziberritzearen ikuspegitik aurrera eramaten ari diren ikerketa eta esku hartze proiektuak ezagutu eta lantzeko aukera eskaini zuen. Gaiaren ikuspegi zabala partekatuta, aurrera begirako erronka nagusien gainean hausnartu eta eztabaidatu zuten ikerlari, teknikari, irakasle eta bestelako parte hartzaileek. Iruñeko Baluarte Jauregiak egin zen jardunaldia eta streaming bidez ere parte hartu zuten zenbaitek.

- 09:15 Antolatzaileen agurra
- 09:30 Jatorri atzerritarreko herritarrak Euskal Herrian: kokapen deskriptiboa
Arkaitz Fullaondo (Ikuspegi Behatokia)- EAE
Orreaga Azcona (Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusiko Karibu Zerbitzua. Nafarroako Gobernua)- NFK
Eguzki Urteaga (UPV/EHU)- Ipar Euskal Herria
- 10:30 Hizkuntza-aniztasuna: bizipenak eta jarrerak
Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra) eta Xabier Aierdi (Begirune Fundazioa)
- 11:30 Atsedenaldia
- 12:00 Eskola testuinguruko errealitatea eta esperientziak
Amelia Barquin (Mondragon Unib. HUHEZI)
Biotza Piko (Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila)
- 13:15 Herri eta komunitate mailako errealitatea eta esperientziak
Alex Vadillo eta Elena Urzelai (Gasteizko Udala)
Arkaitz Fullaondo (Ikuspegi Behatokia)
Urko Ikardo (Bortzirietako Euskara Zerbitzua)
- 14:30 Bazkalordua
- 15:30 Kataluniako kasua: esperientziak, ekimenak eta politikak
Hitzaldia
Eunice Romero (Migrazio, Babes eta Antiarrazismo Zuzendari Nagusia. Generalitat de Catalunya)
- 16:30 Aurrera begirako erronkak eta proposamenak (Mahai-ingurua)
Xabier Aierdi (Begirune Fundazioa)
Virginia Eraso (Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusiko Karibu Zerbitzua. Nafarroako Gobernua)
Eunice Romero (Migrazio, Babes eta Antiarrazismo Zuzendaritza Nagusia. Kataluniako Generalitate)
- 17:30 Egunaren errepassoa eta itxiera

➔ <https://soziolinguistika.eus/jardunaldia>

Babesle-laguntzaileak:

- Nafarroako Gobernua. Euskarabidea Institutua
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.28

Soziolinguistikari buruzko euskarazko aldizkari zientifikoa, akademikoa eta dibulgatzailea.

Zuzendaria | Iñaki Martinez de Luna

Koordinatzaileak | Beñat Garaio, Isabel Godinez eta Belen Uringa

Argitalpen Batzordea |

- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
- Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna)
- Jone Miren Hernandez (Antropologoa eta UPV-EHUko irakaslea)
- Lionel Joly (Euskaltzaindia)
- Inma Muñoa (Ikastolen Elkarteko kidea eta irakaslea)
- Beñat Garaio (Soziolinguista)
- Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea)
- Eneko Gorri (Biarrizko Herriko Etxeko euskara teknikaria)

➔ <https://bat.soziolinguistika.eus/>

BAT Soziolinguistika Aldizkaria

Euskararen soziolinguistikaren inguruko artikuluko akademiko eta zientifikoak argitaratzen dira aldizkarian, urtean lau zenbakitan. Gainera, Euskal Herriko esperientzietako dibulgazioko lanak ere biltzen dira, baita unibertsitate-mailako ikastaro, jardunaldi edo topaketetako hitzaldietan oinarritutakoak ere.

Honako hauek argitaratu dira 2021. urtean:

- Euskararen indar- eta ahulezia-printzak Iparraldean (118)
- Gazteak eta euskara (119)
- Immigrazioa, hizkuntza-aniztasuna eta euskara (120)
- Europako hizkuntza-aniztasunaz (121)

2020. urtetik aurrera, HABE Liburutegiarekin lankidetzan nazioarteko soziolinguistika argitalpenen fitxa teknikoak, laburbildumak eta oinarrizko aurkibideak.

2021ean Aldizkariaren webgunea berritu da.

Aldizkariaren izaera, ibilbidea eta egitura jasotzen dira *aldizkariari buruz* atalean. *Aldizkarian idazteko* gonbitea presente dago webgunean eta horretarako egin beharrekoak eta jarraitzen den prozedura azalduta daude. Azkenik, aldizkariaren aldaera digitala emailan edo/eta paperezkoa postontzian jaso nahi duenak *harpidetzeko aukera* eskaintzen da. Bat Soziolinguistika Aldizkaria aldizkari zientifikoaren nazioarteko parametro homologatuen arabera funtzionatzeko urratsak ematen ari da azken urteetan eta webgune honen sorrerak bide horretan aurrera egitea ere badakar berekin.

Aldizkari osoak edo artikulua solte eskuratzeko aukera eskaintzen da. Beti bezala, azken lau zenbakiak eta bertako artikulua salgai daude eta hori baino zaharragoak direnak doan deskargatu eta irakurri daitezke. Webgunearen eraberritzearekin Bat Soziolinguistika Aldizkariaren artxi- bo historikoa digitalizatu, bildu eta antolatu da.



Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



3.29

Bertako eta nazioarteko soziolinguistika albisteak, hitzorduak eta argitalpenak biltzen dituen hamabostekari digitala.

Koordinatzaileak | Maialen Iñarra, Asier Basurto eta Beñat Garaio
Partaidea | Leire Muxika (EMUN)

Soziolinguistika Albistaria

2016. urtean, zaintza teknologikoa sistematikoki egiteko prozesua eta tresnak definitu zituen Soziolinguistika Klusterrak. Sistema horren bidez, soziolinguistikaren, hizkuntza gutxituen eta euskararen biziberritzearen gaineko jarduera zientifikoak, akademikoak eta sozialak jarraitzen dira. Egun, 100 iturri baino gehiago baliatzen dira intereseko informazioa bilatzeko.

Jasotako informazio hori Soziolinguistika Albistariaren bidez helarazten zaio euskal soziolinguistika komunitateari. Funtsean, hitzorduez, irakur-gaiez, eragileez edo ideiez elikatzen da Soziolinguistika Klusterraren inguruan lanean diharduen sarea. Gaur egun, 870 harpidedun ditu albistariak.

Hain zuzen, bi astean behin, bertako eta nazioarteko soziolinguistikari buruzko 18 albiste inguruko bilduma zabaltzen da posta elektronikoz, sare sozialen bidez eta webguneko atalean. Dagoeneko 112 zenbaki hedatu dira; 2021. urtean, zehazki, 91.etik 112.era.

Bestalde, 2021ean hainbat dira albistariez gain egindakoak, hala nola, Soziolinguistika Albistariaren ebaluazioa (bai barne-adierazle batzuk jarraituz, bai irakurleei galdetuz) eta albistaria hobetzeko ekintzak (albisteen iturriak moldatu eta diseinua eraberritzen hasi). Egindako ebaluazioak albistariak onarpen oso zabala dela eta hurrengo urteetarako hobekuntzak zeintzuk izan daitezkeen erakusten du.



➔ <http://soziolinguistika.eus/albistaria>

Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia

3.30

Euskal soziolinguistikaren ezagutza-bilgetia eta hedabidea.


Soziolinguistika.eus Webgunea

Webgunea da gaur egun erakunde batek eta aldizkari zientifiko batek sortzen dituzten edukiak interneten plazaratzeko euskarri nagusia. Erabiltzaile eta irakurleekin harremana eta komunikazioa errazteko asmoz, Soziolinguistika Klusterraren (eta Bat Soziolinguistika Aldizkariaren) webgunea(k) berri du (ir)ja. Iametzat komunikazio enpresa arduratu da lan teknikoaz eta 2021eko apirilean aurkeztu da publikoki webgune eraberritua. Klusterraren zein Aldizkariaren sareko atariei goitik beherako berritzea egin zaie. Edukiak antolatu eta erakusteko modua egokitu da, eduki bartzuen formatuak aldatu dira eta diseinu grafiko berri batez jantzita eskaintzen dira orain.

Soziolinguistika Klusterraren webgunean (www.soziolinguistika.eus) lau atal nagusitan antolatu dira edukiak:

- **Nor gara:** erakundearen izaera, ezaugarriak eta funtzionamenduari lotutako informazioa. Baita Soziolinguistika Klusterra osatzen duten pertsona eta erakundeen gainekoa ere.
- **Aktualitatea:** euskal soziolinguistikaren azken berriak eta hitzorduak.
- **Zabalpena:** soziolinguistika ezagutzaren kudeaketarekin lotutako egitasmo eta baliabideen bilgunea da. Ekitaldiak, argitalpenak, deialdiak, albistaria...
- **Proiektuak:** Soziolinguistika Klusterrak garatu dituen eta garatzen diharduen proiektu bakoitzaren atala biltzen da hemen.

Koordinatzailea |
Asier Basurto



Webgunearen azalean gehien erabiltzen diren atal eta edukietara sarbide erraza eskaintzen da, erabiltzailea behar duen edukietara ahalik eta lasterren hel dadin.

Webgunearen gaztelaniazko, frantseseko eta ingelesezko aldaeratan erakundearen izaera eta antolaketari lotutako oinarriko informazioa hizkuntza horietan eskaintzea bermatu da.

➔ <https://soziolinguistika.eus/>

Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



4

LANKIDETZAK, HARREMANAK ETA BESTELAKOAK

Ez gabiltza bakarrik bide honetan

4.1

AURKEZPENAK ETA FORMAKUNTZA

- 2021/01/21** Euskarabidearekin eta Nafarroako Euskara Zerbitzuen Sarearekin tailer telematikoa hizkuntza-aktibaziorako gakoaren inguruan.
- 2021/02/19** Ama-hizkuntzaren Nazioarteko eguneko ekitaldian "Bizkaiko Hizkuntza Aniztasunaren Mapa"ren aurkezpena. (Bilbo)
- 2021/02/23** Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean "Gazteak euskararen eszenatokian. Erabileraren auzia" ikerketaren aurkezpena. (Gasteiz)
- 2021/04/20** Arabako Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako "Eragiteko janzten" zikloan hitzaldia: Herritarrak eta euskara: aktibaziorako gakoak. (Gasteiz)
- 2021/05/23** "Soraluze: bilakaera soziolinguistikoa, gaur egungo egoeraren gakoak eta aurrera begirako ikuspegia" ikerlanaren aurkezpena. (Soraluze)
- 2021/10/21** Soziolinguistika eta euskalgintza mahai-ingurua Azebarri elkarteak antolatutako "Euskal(e)gintza gaur" zikloan hizlari. Paul Bilbao (Kontseilua, Belen Uranga eta Beñat Garaio. (Soziolinguistika Klusterra) (Getxo)
- 2021/12/01** "Eusle metodologia ezagutu" mintegia Euskal Hirigune Elkargoak antolaturiko Euskararen Urtaroaren baitan, Erabil kolektiboarekin elkarlanean. (Bidarrai)

Bulego teknikoko kideek barne-mintegiak egiten dituzte, elkarren arteko ezagutza trukea, hausnarketa partekatua eta formakuntza lantzeko. Soziolinguistika, gizarte-ikerketak, hizkuntza biziberritzea eta lan-tresna eta metodologiaren inguruko gaiak lantzen dira. Lankideen aurkezpenak, artikuluen irakurketak, ikus-entzunezkoen gaineko iruzkinak eta beste hainbat bide erabiltzen dira horretarako. 2021ean 5 barne-mintegi antolatu dira (martxoa, maiatza, ekaina, iraila eta urria). Horietako bitan gonbidatutako hizlariak ere izan dira:

- 2021/09/08** Laurence Alain (Laval Unibertsitatea) - "Quebec-eko hizkuntza-egoera: frantsesa eta jatorrizko herrien hizkuntzak". (Andoain)
- 2021/10/29** Joxe Ramon Uriarte (Euskal Herriko Unibertsitatea) - "A behavioural model of minority language shift: Theory and empirical evidence". (Andoain)

4.2

KONGRESUAK, JARDUNALDIAK ETA MINTEGIAK

- 2021/03/24-26** International Conference on Minority Languages konferentzian parte hartzea proiektu desberdinei lotutako 8 komunikaziorerkin.
- The Ulerrizketa methodology: a way to start speaking basque with passive bilinguals. (Pablo Suberbiola eta Pello Jauregi)



- Compartiendo escenario. Conclusiones de un estudio sobre jóvenes hablantes de euskara. (Olatz Altuna eta Jone Miren Hernandez)
- Promoting public communication in Basque: the experience of the Jendaurrean Erabili community of practice. (Idurre Eskisabel, Eduardo Apodaka, Beatriz Zabalondo, Jordi Morales eta Uxoa Anduaga)
- Acercamiento al ecosistema de la diversidad lingüística de la Comunidad Autónoma Vasca. (Belen Uranga eta Xabier Aierdi)
- Gune soziolinguistiko erdaldunetan ahozkoa lantzeko metodologia bat. (Olatz Bengoetxea, Agurtzane Azpeitia eta Idurre Alonso)
- Students' use of basque at school: main results of Arrue project 2017. (Maialen Iñarra)
- A grassroots experience of a sociolinguistic research centre to revitalize the language. (Imanol Larrea)
- Linguistic practices between media and organizations in a minority language public communication context. (Beatriz Zabalondo eta Asier Basurto)

2021/07/07

Hizkuntza gutxituen aldeko aktibazio soziala: egoera eta etorkizunerako gakoak Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako EHUren Uda ikastaroan saioa. (Donostia)

2021/07/23-24

Interakzionismo Sozio Diskurtsiboaren Nazioarteko Kongresuan bi ponentzia. (Donostia):

- Ahozkoa eskolan: irakaskuntza helburu izatetik harremanen erdigunean jartzera. Esperientzia baten berri. (Olatz Bengoetxea eta Nagore Murua)
- Ahozko sekuentzia didaktikoen azalerraturatutako erronkak: formazio-ikerketan esperientzia bat testuinguru erdaldunean. (Leire Diaz de Gereñu, Ibon Manterolak eta Olatz Bengoetxea)

2021/10/27-28

Eusko Jaurlaritzaren Ulibarri programaren baitan antolatzen diren Eskola Hiztun Bila Jardunaldietan mahai-ingurua: "Nahia elikatu eta praktikan eragin, eskolan eta eskolaz kanpo". Soziolinguistika Klusterreko Maialen Iñarra, Bartzelonako Unibertsitateko Avel-i Flors-Mas, Vigoko Unibertsitateko Fernando Ramallo eta Emuneko Ainhoa Lasa aritu ziren, Soziolinguistika Klusterreko Beñat Garaioek gidatuta. (Donostia)

2021/11/21

"Medición del uso de las lenguas" formazio saio telematikoa Plataforma Per La Llenguako kideentzat. (2021/11/21)

2021/11/26

"Euskararen bilakaera soziolinguistiko: zertan da euskalduntze prozesua" hitzaldia, Etxepare Institutuak antolatutako "Atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasteko prestakuntza" ikastaroan. (Gasteiz)

4.3


**EGITASMO BEREZETAN
PARTE HARTZEA**

- 2021/04/27** EHUko Soziologia graduko lehen mailan, Gizarte eta Politika Ikerketarako Sarrera ikasgaiaren Soziolinguistika Klusterraren eta zenbait proiekturen aurkezpena. (Leioa)
- 2021/05-06** Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen (HIGA) topaketaren orde 2021ean antolatu den E-GA proiektu lehiaketan eta online topaketan Batzorde Zientifikoan eta epaimahaiaren parte hartzea.
- 2021/06** Eusko Jaurlaritzaren "Kirolean Euskara Sustatzeko Plana"ri ekarpena, Euskara Kirokide proiektuan oinarrituta.
- 2021/07/23-30** Garabidek Ekuadorreko Imbabura probintzian, Kitxua komunitatearekin lantzen diharduen hizkuntza biziberritze proiektuan hiru formazio saio.
- 2021/11/26** CLARIAH-EUS ekimenaren aurkezpen mintegian parte hartzea eta Soziolinguistika Klusterraren babesaren Giza eta Gizarte Zientzietan euskara eta euskaraz ikertzeko aukera Europako ikerketa-azpiegiturretan bultzatzeko egitasmoari.
- 2021/12/21** Etorkizuneko euskal hezkuntza sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak zehazteko ponentzian ekarpena eta Eusko Legebiltzarrean, dagokion Batzordean, agerraldia. (Gasteiz)
- Arrue Ikerketaren gaineko kontsultak Ikastolek Elkartea, UEMA eta MU-HUHEZI-tik.
 - Urtxintxak Donostiako haur parkeetan hizkuntzen erabileraren neurketak prestatzeko aholkularitza lana.
 - Artez-ek Bizkaiko Foru Aldundiko hainbat sailetan hizkuntzen erabileraren neurketak egiteko aholkularitza lana.

4.4


HARREMANAK

- 2021/01** Mohand Timaltine. Cadiz-eko unibertsitateko irakaslearekin harremana Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketako metodologiaren inguruan.
- 2021/04** Bangor Unibertsitateko Arwel Williams eta Lowri Angharad Hughes-ekin harremana Aldahitz proiektuan oinarritutako doktore tesiaren harira.
- 2021/06/14** Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiko arduradunarekin eta azterketen ataleko teknikariekin bilera.
- 2021/07/06** AEK-Ahize-rekin online bilera, Naroa Jaurregizuriak garatutako #Damolat ikerketaren emaitzak aurkezteko, kontrastetarako, zabalpenerako eta "Igo Bolumena" jardunaldien inguruan.
- 2021/09/07** Frisiako hizkuntzaren inguruko eragile nagusiekin "Frisiar hizkuntza gizartean eta bizitza publikoan" lantaldearen online mintegian aurkezpena.
- 2021/10/28** Timofey Kornev, Errusiako Zientzia Akademiako Hizkuntzalaritza Institutuko ikertzailearekin bilera, bi erakundeen ezaugarriak eta jarduna partekatzeke. (Donostia)
- Europako Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko kide da Soziolinguistika Klusterra. 2021eko jardura nagusiak:
- 2021/11/22-23** NPLDren urteko batzarra eta hezkuntzako murgiltze sistemari buruzko bilera. (Mallorca)
- 2021/11** Zuzendaritza Batzordeko kide izendatu da Soziolinguistika Klusterra.



BALANTZE EKONOMIKOAREN LABURPENA


Bazkide, lankide, finantzatzaile eta erabiltzaileekin gardentasunez jokatzeko dugun konpromisoari erantzunez 2021eko jardura ekonomikoa laburtzen duten datu batzuk eskaintzen dira jarraian.



- Pertsonal Gastua
- Gastu Orokorrak
- Proiektutetako Kanpo Zerbitzuak

GASTUAK

927.937 €



- Euzko Jaurlaritza (HPS eta Hezkuntza Saila)
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Fakturazioa
- Bazkideak eta harpidetzak
- Erakunde pribatuak

SARRERAK

936.112 €



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2021

